

# HILTON HOTELEKO MISTERIOA

© FRANTXUA COUSTEAU

Ikasleak/Irakasleak  
Poliziakoa. Talai h.i.  
Hondarribia 99/00

*New Yorkeko hotel batean Picassoren koadro erakusketa bat dago. Bertatik azaltzen dira presondegitik atera berriak diren bi ohoin, bi tager eta aitatxi-amatxi bikote bat. Denek nahikeria handia dute hotelera joateko...*

## **Pertsonaiak :**

Kaseta saltzailea

Ibiltariak

Alberto Chivas inspektorea

Johnny Walker lieutenanta

Leonar ohoina

George ohoina

Paris Hilton

Arartekoa

Mam

Papy

Bob tagerra

Angie tagerra

## 1. Ekitaldia

### 1. agerraldia : *New York-eko karrika.*

*\*New York, karrikako giroa ; jendeak ibiltzen dira, eskuin/ezker, adin guzietakoak, batzu biziki seriosak, presatuak, beste batzu lasai-lasai, basket eta kasketa, "rap" mundukoak.*

**Kaseta saltzailea** : New York Times, jaun-andereak erosi New York Times !... Azken berriak fresko freskoak !... Dollar bat eta hamar cents !... Erosi, erosi denek...

*(Jende batzu hurbiltzen zaizkio)* : Milesker jauna... milesker anderea... New York Times, New York Times, nork ez du erosi bere egunkaria, dollar bat eta hamar cents !...

*(Beste batzu hurbiltzen zaizkio)* : Milesker jauna... milesker anderea... Gertakari handi bat New York hirian !... Denek erosi behar duzue, New York Times, erosi New York Times !...

*\*Orai denak ibiltzen dira kaseta irakurriz. Bat gelditzen da, "lous quinquets ataou", harritua, eta beste bat, eta beste bat, etab... Orain denak geldituak dira, begiak kasetari itzatuak bezala.*

**Ibiltari 1** : Picasso-ren erakusketa Hilton hotelean !...

**Ibiltari 2** : Picasso, bikain, izigarri gustokoa dut !...

**Ibiltari 3** : Artista handia da, mundu guzian ezagutua !...

**Ibiltari 4** : Picasso-ren erakusketa New York-en, bikain, bikain, super-bikain !...

**Ibiltari 5** : Bikain ?!... Baduzu burutik ?...

**Ibiltari 6** : Ez daki margotzen !... Aurpegiak hola marrazten ditu... *(Izigarriko grimasa).*

**Ibiltari 7** : Ez duzu deusik ezagutzen !... Artista handia da, mundiala !

*\*Izigarriko gatazkak segitzen du : batzuk Picasso maite dute, besteek hastiatzen.*

*\*Poliziaren tuta entzuten da, urrunetik heldu eta gero-ta hurbilago.*

**Alberto Chivas inspektorea** : Bainan zer gertatzen da hemen !...

**Jendeak** : Euh... fitsik... euh...

**Johnny Walker lieutenanta** : Zoazte etxera, edo gakatzen zaituztet !... *(Denak ateratzen dira).*

**Alberto** : Begira zer zikinkeriak utzi dituzten lurrean.

**Johnny** : *(Kaseta bat hartu eta irakurtzen du)* : Picasso-ren erakusketa New York-eko Hilton hotelean... Picasso, nor da hori, ezagutzen duzu, zuk ?

**Alberto** : Picasso, bixtan da, denek ezagutzen dute !

**Johnny** : *(Aurpegi doi bat zozoa eginez)* : Ah bon ?!... Nor da ?...

**Alberto** : Picasso... margolaria... mundu guziko famatuena... Jendeak hola margotzen ditu... *(Aurpegia eskuen artean hartu eta itsuski itxuraldatzen du.)*

**Johnny** : *(Beti harritua)* : Marrazten ez daki edo ?...

**Alberto** : Picassok ?... marrazten ez dakiela ?... (*irriz*) : Ha ha ha !!...

**Johnny** : (*Gaitzitua, kaseta lurrera botatzen du.*)

**Alberto** : (*Beti irriz, kaseta hartzen du*) : Alo alo, Johnny, ez da gaitzitu behar... (*irakurri eta harridura nabaritzen zaio*) : Leonar eta George lapurrak karrikan dira berriz ere !!!...

**Johnny** : (*Pistola eskuan hartuz, Lucky-Luke bezala*) : Leonar eta George ?... Ihes egin dute ?

**Alberto** : (*Kaseta ongi begiratzuz.*) : Ez ez, hamar urte bete dituzte... askatu dituzte...

**Johnny** : Laster pasatu dira, bada, hamar urte !

**Alberto** : Bai, gainera gu izan ginen presondegiratu genituenak.

**Johnny** : (*Eskuarekin erakutsiz*) : Begira Alberto, afitxa handi bat emaiten dute...

**Alberto** : (*Irakurriz*) : Pi-ca-sso-ren e-ra-kus-ke-ta Hil-ton Ho-te-lean... (*Bat-batean ulertzen du*) : Kasu, Johnny, Leonar eta George zaindu beharko ditugu !

**Johnny** : (*Ez du ulertzen*) : Bainan Alberto, erran duzu aske zirela orain, libro...

**Alberto** : Bainan Johnny, Picassoren koadroak... (*Keinu egiten dio, eskuarekin, lapurtu nahiko dituztela*) : Leonar eta George han izanen dira, segur !... Zu zoazi handik, ni hemendik. (*Ateratzen dira, bedera eskualdetik. Johnny ez da batere fida.*)

## **2. agerraldia : bi ohoinak.**

*\*Leonar eta George sartzen dira, kontent bixtan dena, bainan ere harrituak, galduak bezala.*

**Leonar** : Hamar urte, hamar urte pasatu dira, George : ez dakit gehiago ibiltzen dakidanez ere.

**George** : Egia duzu gaixo Leonar, hamar urte, tinki tinkia, laur pareten artean !

**Leonar** : Hamar urte, gela ttipi, hotz eta heze batean.

**George** : Hamar urte barnean, giltzaturik, gakaturik : ohetik kadirara, kadiratik ibilaldira, ibilalditik gelara, gelatik gelara, kadiratik ohera, ohetik kadirara...

**Leonar** : Orenak, egunak, asteak, hilabeteak, sasoinak eta urteak kondatzen...

**George** : Goiza, arratsaldea, gaua, egun bat, egun bi, egun hiru...

**Leonar** : Astelehena, astearta, asteazkena, urtarrila, otsaila, martxoa...

**George** : Mila bederatzi ehunta laurogoita hemezortzi urtea...

**Leonar** : Laurogoita hemeretzi, bi mila, bi mila ta bat, bi, hiru, lau bortz sei...

**George** : Bi mila ta zazpi... Aske gira, Bill... (*Gero ta gorago*) : ASKE, ASKE, LIBRO !!!

**Leonar** : Begira George, presondegian sartu ginelarik, bazen jende ainitz : poliziak, jendarmeak, epaileak, jujeak, abokatak, kasetariak, zaindariak... ateratzen gira eta ez da nehor...

**George** : Arrazoin duzu, Leonar... Bitxi da... New york-en gira halere...

**Leonar** : Nola aldatua den hiria !

**George** : Egia da. Eraikin hori berritu dute, lehen zahar-zaharra zen eta !

**Leonar** : (*Ongi begiratuta*) : George !... Begira zer emana den kartela handi hartan !

**George** : Picassoren kuadroak Hilton Hotelean !... (*Eskuak torratzen ditu, aurpegia argitzen zaiola*).

**Leonar** : Zer, lan egiteko gogo berritu zauzu ala ?

**George** : Nork daki ?...

**Leonar** : (*Harritua*) : George !... Hamar urte itzalean iragan ditugu eta...

**George** : Lasai, Leonar... Iragana iragana da... Errazu, goseak hila naiz.

**Leonar** : Baita ni ere ; txakur bat jan nezake, garagardo fresko batekin halere.

*\*Urrunera, hiri handiaren oihartzuna entzuten da : autoak jendeak tutak...*

**George** : Entzun, Leonar, New York esnatzen ari da...

**Leonar** : Segur naiz denak Picassoren erakusketara doatzila...

**George** : Ongi da... Goazen orai... Bitartean bi gogoeta eginen ditugu, heia ba nola antolatuko dugun lapurketa tiki hori...

### **3. agerraldia : Hilton hotelaren aitzinean**

*\*Orai hiriaren zarrata emendatzen da. Taulada jendez betatzen da.*

*\*Denak blokatuak dira Hilton hoteleko ate handiaren aitzinean.*

**Jendeak** : (*Kexu, oihuka*) : Kasu ohh !... Ai, nere oinak !... Kasu egizu, zer deabru !... etab...

*\*Poliziaren tuta entzuten da, urrunetik heldu eta gero-ta hurbilago.*

**Alberto Chivas inspektorea** : (*J.*) : Bainan zer gertatzen da hemen !...

**Ibiltari 8** : Lekua ebatsi daut !...

**Ibiltari 9** : Ez da egia, ni nintzen lehena !...

**Johnny Walker lieutenanta** : (*C.*) : Kalmatzen gira otoi !... Hilton hotelaren aitzinean zirezte hemen, ez eta futbaleko zelaietan !

**Alberto** : (*Jendeak tauladako bi sahetsetan emaiten ditu*) : Baztertu jaun-andereak, Hilton hoteleko etxekanderea mintzatuko da, baztertu, baztertu otoi !...

**Paris Hilton** : (*Gibeletik sartu eta taulada erdian emaiten da*) : Jaun-andereak egun on ! Hilton hotela handizki ohoratua da holako erakusketa handi baten erakustea gatik ! Pentsamazue, Picasso, hogoigarren mendeko margolari garrantzitsuena !

**JENDEAK** : (*Aho batez*) : SAR-TU NA-HI DUGU !... SAR-TU NA-HI DUGU !... SAR-TU NA-HI DUGU !

**Paris Hilton** : (*Irri zuri batekin*) : Zuen jakin minak Hilton hotela handizki ohoratzen du !... Hilton hotela, New York-eko perla, Hilton hotela, sartu eta goza !

**JENDEAK** : (*Ozenago*) : SAR-TU NA-HI DUGU !... SAR-TU NA-HI DUGU !... SAR-TU NA-HI DUGU !

**Paris Hilton** : (*Doi bat beldurtua*) : Jaun-andereak barkatu bainan, denak elgarrekin ez dea posible izanen : sobera zirezte !

**JENDEAK** : (*Ozenago*) : SAR-TU NA-HI DUGU !... SAR-TU NA-HI DUGU !... SAR-TU NA-HI DUGU !

**Alberto/Johnny** : (*Pistolak zerura altxatzen dute* : **tirokadaren zarrata entzuten da.**)

**Paris Hilton** : (*Irri zuri batekin*) : Milesker Johnny eta Alberto !... Jaun-andereak orai Hilton hoteleko atarira sartuko zirezte banazka, eta zuen aldia igurikatuko duzue.

#### 4. agerraldia : **Hilton hotelaren atarian.**

\**Musika ezti bat. Jendeak ateratuko dira, C.*

\**Sei alki emanen dira, taulada aitzinean herrokatuak. Jendu batzu sartzen dira C-tik.*

\**J. aldean jarriko dira bi ez-ezagun.*

\**Erdian jarriko dira beste bi ez-ezagun.*

\**C. aldean jarriko dira Leonar eta George.*

\**Ez dakite zer erran. Politeziatzko begiradak.*

**Arartekoa** : (J.-tik sartuz) : Lehen biak sartzen ahal dira...

\**J. aldeko bi ez-ezagunak J.-ra ateratzen dira.*

\**Erdiko beste bi ez-ezagunak xuti eta J. alkietan jartzen dira.*

\**C. aldean jarriak ziren , Leonar eta George xuti eta erdian jartzen dira.*

\**C. aldetik Bob eta Angie bi marrazkilariak sartu eta C aldean jartzen dira.*

\**Ez dakite zer erran. Politeziatzko begiradak.*

**Arartekoa** : (J.-tik sartuz) : Beste bi sartzen ahal dira...

\**J. aldeko bi ez-ezagunak J.-ra ateratzen dira.*

\**Erdiko Leonar eta George xuti eta J. alkietan jartzen dira.*

\**C. aldean jarriak ziren , Bob eta Angie bi marrazkilariak xuti eta erdian jartzen dira.*

**Mam** : (C.-tik sartuz) : Gizon hau beti azkena !

**Papy** : (C.-tik sartuz) : Lasai, Mam, heldu, heldu....

**Mam** : (C. aldeko alki batean jarriz) : Ai, marranta madarikatu hau ! Hezur guziak senditzen ditut.

**Papy** : (*Bere ondoan jarriz*) : Lasai, Mam, adina besterik ez da.

**Mam** : (*Gaitzitua*) : Adina, adina... Milesker, Papy. (*Besteri*) : Ah, ezkont zirezte, gero ikusiko duzue !...

**Papy** : Lasai, Mam, irri egiteko da.

**Mam** : Irri egin ezazu nahi baduzu, bainan zure buruaz otoi !

**Papy** : Ixo, Mam, ez gira bakarrik...

*\*Irri batzu... Ez dakite zer erran. Politeziazko begiradak.*

**Bob** : (*Giroa lasaitzeko*) : Erakusketaren ikustera etorriak ?...

**Papy** : (*Ez du ongi entzun*) : Nola ?...

**Bob** : Picassoren kuadroentzat etorriak zirezte ?...

**Papy** : Nola ?...

**Angie** : Pi-ca-ssu !... Gostukoa duzue ?...

**Papy** : Ah, Hilton hotela ?... Bai, segur, biziki ederra da.

**Mam** : (*Bere senarrari*) : Gaizo Mikle, elkortua zira...

**Papy** : Gazte horiek ez dakite ongi mintzatzen.... Ez dute batere a-hoz-ka-tzen !...

**Mam** : Segur naiz kuadro biziki pollitak izanen direla !

**Papy** : Eta, gainera, Hilton hotelaren ikusteko aukera izanen dugu.

**Mam** : Hilton Hotela... Ez duzu bertze hitzik ahoan zuk... Nik artea maite dut... Artea !

**Angie** : OK Mam, super bikain !

**Mam** : Nor zirezte zuek ?

**Bob** : Artistak gira gu ere, Mam, karrikako artistak !

**Mam** : Eta nolako lana egiten duzue ?... Olio, akuarela, pinsela, arkatza ?

**Angie/Bob** : (*Tindu bonba bat atera sakelatik eta erakusten diete.*)

**Mam** : (*Xutituz, kexu*) : Tager-ak !... Urde zikinak, hiri guzia funditzen duzue zuen zikinkeriekin !

**Papy** : (*Jar-araziz*) : Lasai, Mam, ez da on zure bihotzarentzat !

**Angie** : Kool Mam, margolariak gira, kaleko margolariak !

**Mam** : (*Eskuetan joz, kexu*) : Margolariak ??!!...

**Bob** : Gure barneko minak eta gure ametsak tindatzen ditugu paretetan. Picasso bezala.

**Mam** : (*Gorri-gorria*) : Picasso bezala !?!?!...

**Angie** : Tipo nahiko brantxatua zen Picasso hura !

**Bob** : Egia duzu Big-boss. Ni erabat inspiratzen nau. (*Mam-eri*) : Begira !

*\*Hasten dira tira-hala pareta baten tindatzen ari balire bezala, doi bat "hip-hop" moldean mugituz.*

**Angie** : Orduan, Mam ?

**Bob** : Bronx-eko kale guziak super bikain wuay emaiten ditugu !

**Papy** : Aski zozokeria !... (*Irriño bat ezpainetan*) : Errazue egia, Picassoren kuadro bat... (*Eskuarekin lapurraren keinua egiten die.*)

**Angie** : Nola, Papy ?

**Papy** : (*Betiko irriñoarekin*) : Errazue egia, nahi duzue... (*Berriz lapurraren keinua egiten die.*)

**Bob** : (*Harritua*) : Papy, baduzu burutik ?... Guk Picasso asko maite dugu... asko...

**Mam** : (*Eskuarekin diruaren keinua eginez*) : Bai eta hori ere "asko" maite duzue ez ?...

**Angie** : Mam, baduzu burutik?

*\*Ixiltasun luze bat. Denek elgar begiratzen dute. Denak mesfidatzen dira.*

*\* J. aldean jarriak diren **Leonar** eta **George** begiratzen dituzte ere.*

**Papy** : (*Leonar eta George-ri*) : Eta zuek, nor zirezte ?

**Leonar** : (*Genatua*) : Gu ?... beh...

**George** : Guk ere Picassoren obrak asko maite ditugu... asko...

**Arartekoa** : (*J.-tik sartuz*) : Sartzen ahal zirezte... (*Denak ateratzen dira, J.*)

## **2. Ekitaldia**

*\*Mintzo ez diren haurrek "Picasso erakusketa" antolatuko dute :*

*-Kuadro batzu zutabe batzueri lotuak.*

*-Haurrek "obra" batzu gorpuztuko dituzte.*

*\***Arartekoa** eta sei bisitariak sartzen dira, J.*

### **1. agerraldia : Erakusketa.**

**Arartekoa** : Hara beraz Hilton hotelak eskaintzen dizuen erakusketa zoragarria.

**Denak** : (*Irri zuri batzuekin*) : Ah !!... Oh !!...

**Arartekoa** : Bai, badakit, izugarrizko txokea egiten du.

**Denak** : (*Irri zuri batzuekin*) : Oh bai !!...

**Arartekoa** : Jakin behar da Picassok hogoigarren mendea osoki zeharkatu duela.

**Bob** : Garai asko bizi izan ditu, ez ?

**Arartekoa** : Segur !... Eta bere obrak ongi erakusten du : Picassok ukan du aro urdina, aro arrosa eta klasikoa, aipatu gabe kubismo eta surrealismoa.

**Angie** : Bere obra handienak zoin dira ?

**Arartekoa** : "Avignon-go andereñoak", "Gernika", bai eta bere marrazki eta eskulturak.

**Mam** : Xantza handia badugu horiek guzien ikustea...

**Arartekoa** : Bai zinez egia duzu. Beste galderarik baduzue ?

**Papy** : Euh... Nun dira komunak ?

**Mam** : Mikle, oohh !!...

**Arartekoa** : (*Irriz*) : Lasai... ( **J** aldera eskua luzatuz ) : Lehenbiziko atea eskuin...

**Papy** : Milesker anderea... (*Ateratzen da, J* , izterrak tinkatuz.)

**Arartekoa** : Bisita gaineko gelan hasten da, hortik.

*\*Ateratzen dira, C. Arartekolaria bakarrik gelditzen da.*

*\*Alberto eta Johnny bi polizierrak sartzen dira, J.*

## **2. agerraldia : Bi polizierrak.**

**Arartekoa** : (*Harritua*) : Bai... Egun on jaunak...

**Alberto** : Alberto Chivas inspektorea... (*Bere laguna erakutsiz*) : Johnny Walker lieutenanta.

**Johnny** : Bisitariak badira lehen pisuan ?

**Arartekoa** : Bai bai... Zer gertatzen da, arazo zerbait badago ?

**Alberto** : Bai, uste dugu Leonar eta George lapur ospetsuak hor direla.

**Arartekoa** : Lapurrak ?... Ohoinak ?... Ez da posible, egizue zerbait, otoi !

**Johnny** : Zaude lasai, andereño, bi koxkorro horiek ongi zainduko ditugu...

*\*Poliziak aitzinatzen dira, erakusketaren erdira.*

**Johnny** : Hori da Picasso ?...

**Alberto** : Bai, hori da... Ez duzu gustukoa ?

**Johnny** : Beuh... Nik ez nuke nahi holako bat etxean...

**Alberto** : Alta, ainitzek nahi lukete...

**Johnny** : Zuk ere ?...

**Alberto** : Segur, nahi nuke bainan... (*Eskuarekin diruaren keinua egiten du.*)

**Johnny** : Asko balio du ?...

**Alberto** : Asko, asko, asko !...

**Johnny** : Zeinbat ?...

**Alberto** : Miliunak eta miliunak...

**Johnny** : Ez dakit zergatik bainan, beldur naiz...

**Papy** : (*Sartzen da J, brageta altxatuz. **Johnny** punpe bat egiten du, beldurrez*) : Nun dira bertzeak ?

**Arartekoa** : (*Erhia altxatuz, C. aldera*) : Gainean... Gaineko pisuan...

**Papy** : (*Ateratzen da, C, polizierri irri zozo bat eginez.*)

**Alberto** : (*Keinu eginez*) : Johnny, gorde zaite... (*Ateratzen dira bedera eskualdetatik.*)

*\*Arartekoa, C. aldeko aitzin aitzinean dago, zerbaiten irakurtzen ari da.*

### 3. agerraldia : **Bi ohoinak.**

*\*Leonar eta George sartzen dira, C.-zolatik, arartekoaren gibeletik, ixilka.*

*\*Leonar kasik arartekoa-ren gibelean da.*

**Arartekoa** : (*Harrapatua*) : AAHH !!...

**Leonar** : Barkatu, anderea...

**Arartekoa** : Bainan nor zirezte zuek, zer nahi duzue ?

**George** : Guk ?... Be, Picasso miresten dugu, miresten...

**Leonar** : (*Arartekoari hurbilduz, C., liburu bat erakutsiz*) : Preseski, anderea, "kubismoa" ez dut ongi ezagutzen... aipatzen ahal didazu, otoi ?...

**Arartekoa** : (*Bi gizonak ongi begiratu eta*) : Picassok Andorran egin zuen egonaldiaren ondotik, kolore arreak erabiltzen hasi zen. Bolumenak eta formak soildu eta gogortu zituen. Cézanne-ren arte beltzaren eragina izan zuen...

**George** : (*Arartekoa mintzatzen ari den bitartean, **Leonar** kuadro batetaz hurbiltzen da. Senditzen da kuadroa hartu eta eramanen duela.*)

**Arartekoa** : ...Braque eta Gris pintoreekin batera kubismoa sortu zuen...

**George** : (*Kuadroa eskuetan hartu eta J. aldera doa, emeki emeki.*)

**Alberto** : (*C-tik punpean sartuz, pistola eskuan*) : Geldi hor, George !...

**George** : (*Kuadroa bere lekuan emanaz*) : Euh, kuadroa ongi begiratu nahi nuen, besterik ez !...

**Alberto** : Zozo batentzat hartzen nauzu ?

**Leonar** : (*Liburua altxatuz*) : Bai !!... (*Liburuarekin emaiten dio buru gainean*) : BOUM !!...

*\*Leonar eta George-ek ihes egiten dute, J.*

**Johnny** : (*Sartu eta lurrean den Alberto-ri pistola luzatuz*) : Altxa eskuak Leonar !

**Alberto** : (*Ahal bezala xutituz*) : Johnny, deabru zozoa, ni naiz !

**Johnny** : Euh, barkatu, Alberto... (*Errotua, oihuka*) : Leonar eta George, arrapatuak zirezte !!

**Arartekoa** : (*J. aldea erakutsiz*) : Ihes egin dute !...

**Alberto** : (*Ateratzekotan, J.*) : Ale, goazen !...

**Arartekoa** : Ez !... Otoi, beldur naiz... Badira beste batzu, lehen pisuan...

**Johnny** : Ohoinak dira ?

**Arartekoa** : (*Keinu egiten du... Alabainan, ez daki...*)

**Alberto** : Gorde gaitezen... Eta begia atxik he... Begia atxik, Johnny !

#### **4. agerraldia : Bi tagerrak.**

*\*Bob eta Angie azaltzen dira, C.-tik sartuz. Arartekoa ez da batere fida.*

*\*Bi gizonek holako irripar zuri eta faltsu bat egiten diote.*

**Bob** : (*Arartekoari*) : Erakusketa zoragarria da !... Zinez, ikustekoa !...

**Angie** : Arrazoin duzu, Bob. Kultura burgesaren zutabeak zangopilatzen ditu, Picassok.

**Bob** : Marrazki eta margoaren oreka bikaina, azpimarratu nahi nuke, Angie...

**Angie** : Ametsa, irudimena, griña, umore beltza : goraiatzekoa !...

**Bob** : Begira zein flipantea den kuadro hau !

**Arartekoa** : (*C. alderdian emanik*) : Artistak zirezte ?...

**Angie** : (*Xume egon nahi duela erakutsiz*) : Bai, bai... Ahal duguna egiten dugu... (*Berari hurbilduz, C.*) : Errazu, aro urdina aipatzen ahal didazu otoi ?

**Arartekoa** : (*Ez da batere fida*) : Egia, serioski galdegiten didazu?...

**Angie** : Bai, bai... Segur baietz... (*Bere laguna begiratuta*) : Pintoreak gira gu ere...

**Arartekoa** : (*Urduri*) : Garai horretan, eragin handia izan zuen sinbolismoak... (*ez da lasai*)

**Bob** : Segi, anderea, segi !...

**Arartekoa** : Aro hori "urdina" deitzen da Picassok erabilitako kolore gama-gatik...

**Bob** : (*Arartekoa mintzatzen ari den bitartean, Bob kuadroaz hurbiltzen da. Senditzen da hartu eta eramane duela.*)

**Arartekoa** : ...Aro urdinekoak dira "Bizitza", "Haurra uxoarekin", "Haura jarririk"...

**Bob** : (Kuadroa eskuetan hartu eta **J.** aldera doa, emeki emeki.)

**Alberto** : (**C.**-tik punpean sartuz, pistola eskuan) : Geldi hor !...

**Bob** : (Kuadroa bere lekuan emanaz) : Euh, kuadroa ongi begiratu nahi nuen, besterik ez !...

**Alberto** : Zozo batentzat hartzen nauzu ?

**Angie** : (Itzuli, tindu bonba hartu, eta Alberto mehatxatzen du.)

**Johnny** : (Pistola **Angie**-ren kokotz pean emanaz) : Altxa eskuak !

**Alberto** : (**Angie**-ren tindu bonba ikusiz.) : Tager-ak, deabru zikinak !!...

**Johnny** : Etorri gurekin !... Nahiko ongi iraganen duzue presondegian.

**Bob** : Kaka zaharra ! Orain bai ukanen dugula denbora inspiratzeko !

**Angie** : Bai, aspertzeko ere... (Lauak ateratzen dira, **J.**)

#### **5. agerraldia : Mam eta Papy.**

**Arartekoa** : (Nahasia, eskuin/ezker ibiltzen da, beldurrak hartua.)

*\*Mam eta Papy sartzten dira gordezka, **C.** aldetik, **arartekoa** ohartu gabe.*

**Arartekoa** : (Taulada erditsutan, oihu egiten du **C.**aldera buruz) : Mam, Papy, hor zirezte ?...

**Mam** : (**J.** aldetik, pistola bat eskuan) : Bai, hemen naiz !...

**Arartekoa** : (Harritua) : Mam !...

**Papy** : (**C.** aldetik, pistola bat eskuan) : (Eztul bat egiten du) : Hhhuummm !...

**Arartekoa** : (Itzuliz) : Papy !... Aahh !... (Trenpu txartu eta erortzen da Mam-en besoetara.)

**Mam** : Ama saildua, zoin pizua den...

**Papy** : Entrenatu behar da, Mam, entrenatu !

**Mam** : Mikle, ixil zaite minuta bat otoi !

**Papy** : Baditake oso ospetsua dela Picasso hori, bainan nik zirrimarrak besterik ez ditut ikusten...

**Mam** : (Kuadroa erakutsiz) : Begira, kubizmo garaikoa da : zoragarria !

**Aitatxi** : Ez da batere gaizki... (Kuadroa esku artean hartu eta) : Eraman dezagun !...

**Amatxi** : Ongi da !

**Aitatxi** : Gure etxeko logelan biziki untsa izanen da...

*\* Ateratzen dira, kuadroa eramanez.*

**Bukaera.**


Antzerki testu hau Euskal kultur erakundearen web-atarian zintzilikatua izan da, egilearen baimenarekin, <http://antzerkit.eke.eus> helbidean, Iparraldeko euskarazko antzerki testuak biltzen dituen atal batean.

© Copyright lizentziapean zabaldua da.

Ondorioz, ezin zaio inolako aldaketarik ekarri egilearen baimenik gabe.

Ildo beretik, antzerkia publikoaren aitzinean eman nahi izanez gero, egilearen baimena eskuratu behar da derrigorrez (edota egilearen eskubideak kudeatzen dituen pertsona edo erakundearena).

Harremanetan sar daiteke zuzenenean berarekin edo Euskal kultur erakundearen bidez [antzerkia@eke.eus](mailto:antzerkia@eke.eus) helbidera idatziz.



[antzerkit.eke.eus](http://antzerkit.eke.eus)

Ce texte provient du recueil d'œuvres théâtrales en langue basque mises en ligne avec l'accord de leurs auteurs dans une rubrique du site de l'Institut culturel basque à l'adresse <http://antzerkit.eke.eus>.

Il est diffusé sous une licence © Copyright. De fait, aucune modification ne peut lui être apportée sans autorisation de l'auteur.ice.

De même, cette œuvre ne pourra être donnée en public qu'après avoir obtenu l'accord de l'auteur.ice (ou de la personne ou de l'organisme la représentant). Vous pouvez, à cette fin, le/la contacter directement ou obtenir ses coordonnées par le biais de l'Institut culturel basque en adressant un message à l'adresse [antzerkia@eke.eus](mailto:antzerkia@eke.eus).